



**HILERRIA EHORZKETETARAKO  
BAKARRIK IREKIKO DA**

*Villabonako Udalak hileta-agurretan  
asistentzia zorrozteko neurriak ezarriko ditu  
eta udal hilerria itxita mantenduko du*

Zeharkatzen ari garen koronabirusaren pandemiaren aurrean, hileta-agurrak COVID-19 birusaz kutsatzeko foku izan ez daitezen, eta hilerrian lan egiten duten langileen segurtasuna eta osasuna bermatzearren, Villabonako Udalak gizarte-ordena guztietan aplikatzen ari diren asistentzia murrizteko irizpideak aplikatuko ditu.

Horrela,

**HILDAKO HURBILEKOEN AGURRAK**

Intimitaterik zorrotzenez egingo dira, eta hilerrian erresponso labur bat baino ezin izango da egin, gehienez ere 15 pertsonarekin, zorrotz gorde beharko delarik gutxienez metro eta erdiko segurtasun-tartea.

**ERRAUSTEGIAK**

Erraustegietan, errausketa-labearen kanpoko aldean egingo dituzte agurrak (aretora sartu gabe), eta gehienez ere 10 lagun hartuko dituzte, betiere zorrotz gorde beharko delarik gutxienez metro eta erdiko segurtasun-tartea.

**COVID-19k HIL DITUEN PERTSONAK**

Familiak eta hurbilekoak ezingo dute lurperatzera edo erraustera joan.

Azkenik, gogoan izan Amasan dagoen udal hilerria jendearentzat itxita egongo dela.

**EL CEMENTERIO SE ABRIRÁ  
ÚNICAMENTE PARA ENTIERROS**

*El Ayuntamiento de Villabona aplicará  
restricciones de asistencia en las despedidas  
fúnebres y mantiene cerrado el cementerio  
municipal*

Como consecuencia de la pandemia por coronavirus que estamos atravesando, el Ayuntamiento de Villabona ha adoptado los criterios de restricción de asistencia que se están aplicando en todos los órdenes sociales para evitar que las despedidas fúnebres puedan ser foco de contagio del virus COVID-19 así como para garantizar la seguridad y la salud del personal que desarrolla su actividad en el cementerio.

**Despedidas de allegados fallecidos**

Se realizarán en la más estricta intimidad y únicamente se podrá realizar un breve responso en el cementerio con un máximo de 15 personas, debiéndose guardar escrupulosamente la distancia de seguridad mínima de un metro y medio.

**Incineraciones**

Las despedidas se realizarán en la zona exterior del crematorio (sin acceder a la sala) y con un máximo de 10 personas, debiéndose guardar escrupulosamente la distancia de seguridad mínima de un metro y medio.

**Personas fallecidas por COVID-19**

Las familias, allegados y allegadas de las personas fallecidas por COVID19 no podrán acudir a su enterramiento o incineración.

Asimismo, se recuerda que el cementerio municipal sito en Amasa permanecerá cerrado al público.

Villabonan, 2020ko martxoaren 26an

ALKATEORDEAK,

Izp.: Xabat Laborde Echabe